

2017KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko irailaren 28an 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna, EAJ-PNV
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV).
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- - JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV) eta ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI) zinegotziak ez dira bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2017KO ABUZTUAREN 24AN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko abuztuaren 24an egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

218/2017.- *Fakturen obligazinoak onartzea.*

219/2017.- *Fakturen obligazinoen ordainketa onartzea.*

220/2017.- *Kalte-ordaina ordaintzeko ebazpena.*

221/2017.- *Herri miliaren arautegia onartzeko ebazpena.*

222/2017.- *Animalia arriskutsua izateko lizentziaren ebazpena.*

223/2017.- *Herriko frontoia erabilteko baimena.*

224/2017.- *Enpresa bateko konkurtsoko administratzaileari 150.000 euro ordaintzea.*

225/2017.- *Arbolak ebagiteagaitik iminitako bermea itzultzea.*

226/2017.- *Abal bat askatzeko ebazpena.*

227/2017.- *Berme bat itzultzeko ebazpena.*

228/2017.- *Betebeharren ezeztapena egiteko espedienteari hasiera emateko ebazpena.*

229/2017.- *Letratuen gastuak ordaintzeko ebazpena.*

230/2017.- *Nazinoarteko Folk Jaialdia egiteko baimena.*

231/2017.- *Bakioko ostalaritza lokalen itxiera ordutegia luzatzea.*

232/2017.- *Jatako I. Igoera egiteko udal baimena.*

233/2017.- *Dokumental bat emoteko udal baimena.*

234/2017.- *Kitapen baten obligazinoa onartzeko ebazpena.*

235/2017.- *Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari diru-sarrera egitea.*

236/2017.- *Kitapen baten obligazinoa onartzeko ebazpena.*

237/2017.- *Nomina bat ordaintzeko ebazpena.*

238/2017.- *Obra lizentzia emoteko ebazpena.*

239/2017.- *BST eguna egiteko baimena.*

240/2017.- *Marmita txapelketa egiteko baimena.*

241/2017.- *Probalekuaren komunak eta aldagelak barriztatzeko obrak kontratatzeko espedienteari hasikerea emotea.*

242/2017.- *Probalekuan bazkaria egiteko baimena.*

243/2017.- *Itsas pasealekuan argi hartunea eta luzagarria iminteko baimena.*

244/2017.- *Lantaldeko behargin baten eta udalaren arteko hitzarmena.*

245/2017.- *Lantaldeko behargin baten eta udalaren arteko hitzarmena.*

246/2017.- *Lantaldeko behargin baten eta udalaren arteko hitzarmena.*

247/2017.- *Lantaldeko behargin baten eta udalaren arteko hitzarmena.*

248/2017.- *Kuadrilla eguna egiteko baimena.*

249/2017.- *Andra Mari eguna egiteko baimena.*

250/2017.- *Berbaldi baterako megafonia ixteko baimena.*

251/2017.- *Minbiziaren kontrako diru-bilketa egiteko baimena.*

252/2017.- *Megafonia erabilteko baimena.*

253/2017.- *Emondako lizentzia baten iraungitasuna ez adierazotea eta iraungitasun prozedura bat artxibatzea.*

254/2017.- *“Rugby touch seven” ekitaldia egiteko baimena.*

255/2017.- *Haurreskolako aterpena egiteko obrak esleitzeko kontratu txikia.*

256/2017.- *Nominak ordaintzeko ebazpena.*

257/2017.- *Itzulketa batzuk egiteko ebazpena.*

258/2017.- *Kontratazino mahaiak 2017/08/03an egindako proposamena ontzat emotea eta ASUAMOTOR enpreseari dokumentazinoa eskatzea.*

259/2017.- *Probalekuan bazkari bat egiteko udal baimena.*

260/2017.- *Bakeako karpa erabilteko udal baimena.*

261/2017.- Euskadiko Auzokari Autonomoen Alkartegaz izenpetutako kontratua onartzea.

262/2017.- Fakturen obligazioak onartzeko ebazpena.

263/2017.- Ostalaritza lokalen itxiera ordutegia luzatzeko ebazpena.

264/2017.- Probalekuan jaialdia egiteko baimena.

265/2017.- Frontoia erabiltzeko baimena.

266/2017.- Lanperren zerbitzua emoteko kontratazinoa.

267/2017.- Sound system giroko musika ekitaldiak egiteko baimena.

268/2017.- Txosna iminteko baimena.

269/2017.- Txosna iminteko baimena.

270/2017.- Txosna iminteko baimena.

271/2017.- Txosna iminteko baimena.

272/2017.- Fakturen obligazioak onartzeko ebazpena.

273/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzeko ebazpena.

274/2017.- Udal eraikinen garbitasun zerbitzua kontratatzeko espedientea onestea.

275/2017.- Udal eraikinak garbitzeko kontratu txikia esleitzea.

276/2017.- Udal eraikinak garbitzeko kontratu txikia esleitzea.

277/2017.- Erabilera askotarako ibilgailua erostea.

278/2017.- Obra amaierako egiaztagiria eta behin betiko likidazinoa onesteko ebazpena.

279/2017.- Udal erroldan baja emoteko ebazpena.

280/2017.- Ezponda bat egonkortzeko obrei buruzko proiektuaren aldarazpena onartzea.

281/2017.- Haurreskolako aterpearen segurtasun eta osasun plana onartzea.

282/2017.- Andra Mari eguneko ekitaldiaren diru-laguntza ordaintzea.

283/2017.- *Folklore Jaialdiaren ekitaldiaren diru-laguntza ordaintzea.*

284/2017.- *Kitapen baten obligazinoen ordainketa onartzea.*

285/2017.- *Kitapen baten obligazinoen ordainketa onartzea.*

Ostean, Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

241/2017.- Probalekuaren komunak eta aldagelak barriztatzeko obrak kontratatzeke espedienteari hasikerea emotea.

Horren bidez, Kontratazino Mahaiaren 2017ko irailaren 14ko proposamen adjudikazinoa onartzen da, eta *OHNER Innovación SL* enpreseari hamar eguneko epea emoten jako klausula administratibo zehatzen agirian zehaztutako dokumentazinoa aurkezteko, ostean, obrak adjudikatu ahal izateko.

255/2017.- Haurreskolako aterpena egiteko obrak esleitzeko kontratu txikia:

Teknikari batek haurreskolako aterpea egiteko obren proiektua idatzi ostean, hiru eskaintza ekonomiko jaso ziran eta euroei buruzko txosten teknikoaren arabera, Moñita, SL enpreseari kontratua esleitu jakon, esanez obren ordainez 22.940,50€ + BEZ jasoko ebazala.

258/2017.- Kontratazino mahaiak 2017/08/03an egindako proposamena ontzat emotea eta ASUAMOTOR enpreseari dokumentazinoa eskatzea.

Horren bidez, Kontratazino Mahaiak, 2017ko abuztuaren 3an, ASUAMOTOR, S.L. enpresearen alde egindako proposamena onartzen da eta hamar eguneko epea emoten jako klausula administratibo zehatzen agirian zehaztutako dokumentazinoa aurkezteko, ostean, obrak adjudikatu ahal izateko.

274/2017.- Udal eraikinen garbitasun zerbitzua kontratatzeke espedientea onestea.

Herriko eraikinen garbitasun zerbitzua publizidade bako prozedura negoziatu bidez kontratatzeke espedientea onestea, aurrekontua 71.390,00 euro (BEZ barruan) izanik. Hiru enpresa gonbidatu ziran arren, proposamenak bik aurkeztu dabez; hona hemen: Garbialdi SA eta Garbibakio CB.

3.- UDALERRI HONETAN DAGOZAN JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOKO IBAI-IBILGU ETA ERTZETAN ALKARLANEAN ARITZEKO, EUSKO JAURLARITZAKO URAREN EUSKAL AGENTZIA ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO PROTOKOLOA ONARTZEA, HALA BEHAR BALITZ. ETA PROTOKOLOAREN JARRAIPENERAKO BATZORDEKO

KIDE IZANGO DIRAN ORDEZKARI BI IZENDATZEKO ERABAGIA HARTZEA.

Protokolo horren helburua da EUSKO JAURLARITZAKO URAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA BAKIOKO UDALAK hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea, beti be Ekintza Plana adosteko eta erakunde bi horreek Bakioko udalerrian dagozan jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan egin beharreko lanetan eraginkorrakoak izateko. Protokoloak lau urteko iraupena eukiko dau, baina alkarren arteko adotasunez lau urtera arte luzatzeko aukerari kalterik egin barik.

Protokolo horrezaz eta horren jarraipena egiteko eratuko dan batzordeari buruz informazino batzordean berba egin dala kontuan izanik eta, ganera, zinegotziek agiri horren edukiaz jakitun diran ezker, bai eta ikusirik inork be ez dauala aitamenik egin be, zinegotziek, berehala, botoa emoteari ekin deutse, eta, ondorioz, Udalbatzak, aho batez erabagi hau hartu dau:

1.- Udalerrri honetan dagozan jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan alkarlanean aritzeko, Eusko Jaurlaritzako Uraren euskal agentzia eta Bakioko Udalaren arteko protokoloa onartzea eta akta honeri eranstea.

2.- Amets Jauregizar Baraiazarra Bakioko alkate andreari ahalmenak emotea, Bakioko Udalaren izenean protokoloa sinatzeko.

3.- Bakioko alkate andrea eta udaleko arkitekto aholkularia izendatzea, Protokoloaren Jarraipenerako Batzordean Bakioko Udalaren izenean aritzeko.

4.- INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA.

Amets Jauregizar alkate andreak, dino: Bakioko jaietan egon dan sexu eraso salatzeko Udalbatzari proposatzen deusagu adierazpen hau onartzea, eta, bere bai, gaur bertan Sestaon bortizkeria matxistaren ondorioz hildako emakumearen heriotza salatzeko:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA INDARKERIA MATXISTAREN KONTRA

Gure herrian izandako eraso matxistari dagokionez, Bakioko Udalak tinko eta ozen gaitzetsi eta arbuiatu nahi du eraso eta, era berean, biktimarekiko eta haren senideekiko laguntza eta hurbiltasuna adierazi. Horretarako, haren esku jarriko ditu beharrezko bitarteko psikologiko eta juridikoak eta osasun, babes eta harrera baliabideak eta, gainera, berrmatuko du haren interesei eragiten dien informazio guztia eskuragarri duela.

Zentzu honetan, Bakioko Udalak kasuaren berri izan zuenetik, eraso matxistei aurre egiteko jarduketa protokoloa aktibatu zuen.

Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela eta lehen mailako gizarte arazoa, bortizkeria mota hori sufritu behar duten emakumezkoen duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren kontra bete-betean jotzen baitu. Indarkeria mota hau ez da ekintza isolatua, baizik eta gure gizartea egituratzen duten jarrera esplizituen eta mezu normalizatu eta sinbolikoen sare bat, betiere emakumezkoen mendekotasunari eusteko eta indarreko sistema heteropatriarkalak zehaztutako mugak apur dezakeen edozein egitura, eredu edo portaeraren existentzia ez ahalbidetzeko. Jaietan eta aisialdian, dibertsioa, alkohola, jendetza nahiz “denak balio duelako usteak” sorrarazten duen zigorgabetasun sentrazioa haztegi ezin egokiagoak dira indarkeria matxista iraunkor hau azal dadin, emakumezkoek onartzen ez dituzten marruskadura edo musuen bidez, emakumezkoen gorputzen gaineko aipamen edo begirada [umiliagarrien](#) bidez, sexu harremanak izateko presioaren bidez, iruzkin edo keinu homofoboaren bidez, etab.

Hori dela eta, Bakioko komunitate osoan prebentzioa eta gizarte erantzunkidetasuna landu behar dira eraso matxistak berehalakoan arbuiatzeko eta guztiei erantzuna emateko. Ildo horri jarraituz, emakumezkoen giza eskubideen zinezko egikaritzea bermatzeko erakunde erantzule publikoa den aldetik, Bakioko Udalak jarraituko du beharrezko neurriak bultzatzen udal erakundeek eta herritarrek eraso matxistei berehalakoan eta irmo erantzuteko, biktima lehentasunez artatzeko, prebentzio jarduketak aurrera eramateko, emakumezkoek bortizkeriari aurre egitea ahalbidetzeko aukera emango dizkieten tresnak izateko eta erasotzaileen zigorgabetasun sozialari bide ez emateko.

Gainera, Udalak, bere eskumenen esparruan, konpromisoa hartu nahi du laguntza eta babesa ematen jarraitzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizimodu askeak bermatu nahian.

Segiduan, Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, EH-Bilduko lau zinegotzien, EAJ-PNVko lau zinegotzien eta Bakiobaiko zinegotzi baten, aldeko botoagaz, erabagi hau hartu dau: **Indarkeria matxistaren kontrako adierazpen instituzionala onartzea.**

5.- KATALUNIARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA

Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau: EH-Bildu taldeak Informazino Batzordean bere mozinoa aurkeztu eban arren, EAJ-PNV taldeak aste honetako Informazino Batzordean aurkeztutako mozinoa da udal gobernuak hona dakarrena, EH-Bildu taldea horren edukiaz bat datorrelako, batez be, ikusirik Katalunian egunotan dagoan egoerea dala-eta erantzukizunez jokatu behar dogula, halan, adostasuna erakutsiz, alderdikierietan ibili beharrean. Hori esan, eta Udalbatzak onartzea proposatzen dan idatzia irakurri dau:

- 1.-BAKIO Ko Udalak bere kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxilotetak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoiei.
- 2.-BAKIO Ko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.
- 3.- BAKIO. Ko Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.
- 4.- BAKIO ko Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera.

MOCIONES MUNICIPALES.



Segiduan, zortzi zinegotzien aldeko botoagaz (lau EH-Bildu taldekoak eta beste lau EAJ-PNV taldekoak), bertaratutako gehienak izanik, udaleko osoko bilkurak, erabagi hau hartu dau: **Kataluniari buruzko adierazpen instituzionala onartzea.**

Josu Garai zinegotzia abstenidu egin da, esanez horretarako arrazoia aste honetako informazio batzordean azaldu ebala Alain zinegotziak, hau da, Bakiobaiko zinegotziek ez dabela erabagirik emongo Bakioko herriagaz zerikusirik ez daukien gaitan.

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, eskertu egin dau eurak ekarritako testuari EH-Bildu taldeak baiezkua emon izana. Baina argitu dau hemen onartutako adierazpena ez dala EAJ-PNVrena, azken honek, EH-Bildugaz eta Podemosegaz batera adostutakoa baino Eusko Legebiltzarrean.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, eskatu dau kiroldegiko ustiapenaren enpresek ia aurkeztu ahal dauan urteko balantze ekonomikoa; izan be, hori eskatzeko kontratuari atxikitako klausula administratiboaren pleguak aukera emoten dau-eta.

Ametz Jauregizar alkate andreak dinotso eskatu jakola, eta, asmoa dala hurrengoko *Bakiobizi* Informazio Batzordean horri buruz berba egitea.

Beste gai bateri oratuz, Aitor Apraiz zinegotziak, 2018ko udal aurrekontu landu eta onartzeko egutegia ia zein dan galdetu dau.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso Koordinazino Batzordean urriaren 9an batuko dala eta hor aurrekontua landu eta onartzeko kronograma aurkeztuko dala.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:35ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria